



DANIEL MAEZTU PEREZ EH BILDU TALDEKO LEGBILTZARKIDEAK EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO SAILBURUARI, USOA, MIRUA, USAPAL, ENARA ETA ANGOSTO-1 BAIMENETAKO LANAK ELKARTZEARI BURUZ IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAREN ERANTZUNA. (10/10/05/03/4445)

- *Zeintzuk dira aipatutako lanak elkartzeko arrazoiak?*

Egindako galderen azalpenean aipatutako bost baimenetan lanak eta inbertsioak elkartzeko arrazoi nagusia da, hala suertatuz gero, baimenetako batean egindako lanak eta inbertsioak beste baimenetako edozeinetan aplikatzeko aukera edukitzea, baimen horiek emateko errege dekretuetan Estatuko Administrazio Orokorrarekin hartutako konpromisoak betetze aldera.

- *Zein da eskaera horrekin lortu nahi den helburua?*

Galderan aipatzen den Industria, Energia eta Turismoko Ministerioaren Ebazpenean bertan jasotzen den bezala, baimenen esplorazio-helburuak komunak direnez, ez du zentzu tekniko eta ekonomiko handirik ikerketa-lanak indibidualki egiteak. Baliabide naturalen ustiapen arrazionalak gomendatzen du baimenen arteko sinergietatik etekina ateratzea, baliabideak ahalik eta modurik efizienteenean erabilita ezagutza geologiko albait handiena lortzeko.

- *Zergatik eskatu da momentu honetan?*

Galderan aipatzen den Industria, Energia eta Turismoko Ministerioaren Ebazpenean bertan jasota dagoen bezala, eskabidea 2012ko uztailaren 26an aurkeztu zen; hortaz, "orain" lanen eta inbertsioen kontzentrazio horren baimena argitaratu da, hori da orain egin dena. Eskabide hori ebazten izandako atzerapena ezin zaio egotzi Euskadiko Hidrokarburoen Elkartea, SAri (SHESA), baimenen operatzailea eta eskabide-egilea baita.

- *Elkartutako baimen guztieta, aztertutako egitura geologikoa berdina da?*

Galderan aipatzen den Industria, Energia eta Turismoko Ministerioaren Ebazpenean bertan jasota dagoen bezala, egitura geologikoa berbera da, eta, horregatik, onartutako elkartzearen barruan dauden bost baimenetako batean bakarrik egin ahal izango litzateke azterketa.

Gainera, hidrokarburoen gaian aplikatu beharreko legediaren arabera, bi ikerketa-baimen edo gehiago "elkartu" ahal izateko ezinbestean bete beharreko baldintzetako bat da, besteak beste, esplorazio-helburuak komunak izatea.

- *Baimen bakoitzaren egitura geologikoa zehazteko eskatzen da.*

Onartutako elkartzearen barruan dauden bost baimenen egitura geologikoa Bilboko antiklinorioaren ekialdeko alpea da.

- *Aurreikusita dauka SHESAK zein baimenen eremutan egin zundaketak?*

Esplorazio-zundaketa bat egin baino lehen, ezinbesteko baldintza da lan hori egin ahal izateko nahitaezko baimen guztiak lortzea.

Angosto-A esplorazio-zundaketa, hala badagokio, Angosto-1 Baimenean kokatuko da, eta zehatzago esateko Merindad de Montija udalerrian, Las Merindades eskualdean, Burgos probintzian (Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa).

Bi esplorazio-zundaketa egitea aurreikusten da, Enara-1 eta Enara-2 zundaketak, biak kokapen beretik.

- *Non eta noiz egingo dira zundaketak?*

Zundaketak non egingo diren erantzun da dagoeneko aurreko puntuan.

Garaiai dagokionez, ez dago zundaketak egiteko data zehatz bat jartzerik, aipatutako zundaketa guzti-guztiak egiteko behar diren baimenak lortzeko epeak zehaztugabeak eta luzeak baitira; hortaz, aipatutako baimen guztiak lortzean egingo dira.

- *Zein izango da inbertsioaren kopurua?*

Ez dakigunez aurreikusitako proiektuak zehazki noiz egin ahal izango diren, zaila da zenbat diru inbertitu beharko den zehaztea, emandako zenbakiek interpretazio okerrak sortzeko arriskurik izan gabe. Horrez gain, kontuan hartu behar da inbertitu beharreko zenbatekoak gorabehera handiak izan ditzakeela, kontuan hartuta hidrokarburoen sektoreak baldintza aldakorrak dituela, eta kontuan hartuta, halaber, gauzatzeko behar diren materialak eta zerbitzuak merkatuan eskura dauden.

- *Zein baimenetan egingo dira inbertsioak eta zein urtetan?*

Hasiera batean, inbertsioak Angosto-1 eta Enara baimenetan egingo dira, behar diren baimen guztiak lortu ondoren.

Ez dago inbertsioak zein urtetan egingo diren zehazterik, goiko puntueta azaldutakoagatik. Nolanahi ere, aipatutako zundaketa horietakoren bat ezingo litzateke egin 2017. urtea baino lehen, nahitaezko baimen guztiak lortzeko epeak luzeak eta zehaztugabeak direlako.

- *Zeintzuk dira 2015., 2016. eta 2017. urtean aurreikusten diren lanak eta inbertsioak?*

2015. urtean egitea aurreikusten diren lanak eta inbertsioak SHESAre aurrekontuetan eta memorian jasota daudenak dira; soziitate publikoa denez, EAERen aurrekontu orokorretan jasota eta onartuta daude.

2016 eta 2017ko lanak eta inbertsioak ekitaldi bakoitzerako ezarriko dira, oinarrizko bi mugarri kontuan hartuta:

- Izapidezten ari diren baimen-prozedurak zein unetan dauden.
- Dagokien batzordeetan baziideen artean lortutako akordioa, baimenei bere horretan eusteko.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 18a

Arantza Tapia Otaegi

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO SAILBURUA

RESPUESTA A LA PREGUNTA PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO FORMULADA POR D. DANIEL MAEZTU PEREZ, PARLAMENTARIO DEL GRUPO EH BILDU, A LA CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD, SOBRE AGRUPACIÓN DE LOS TRABAJOS DE LAS AUTORIZACIONES USOA, MIRUA, USAPAL, ENARA Y ANGOSTO-1. (10/10/05/03/4445)

- *¿Cuáles son las razones para concentrar los mencionados trabajos?*

La razón principal para concentrar los trabajos e inversiones en los cinco permisos citados en el justificativo de las preguntas realizadas, es poder disponer de la posibilidad de aplicar, llegado el caso, los trabajos e inversiones realizados en uno de los permisos a cualesquiera de los otros indistintamente, de cara al cumplimiento de los compromisos adquiridos con la Administración General del Estado en los Reales Decretos de otorgamiento de tales permisos.

- *¿Qué objetivo se busca con esa solicitud?*

Tal y como figura en la propia Resolución del Ministerio de Industria, Energía y Turismo citada en la pregunta, dado que los objetivos exploratorios de los permisos son comunes, tiene poco sentido técnico y económico el plantear los trabajos de investigación de forma individual. El aprovechamiento racional de los recursos naturales recomienda beneficiarse de las sinergias entre permisos que conduzca a un empleo de recursos lo más eficiente posible que permita un mayor conocimiento geológico.

- *¿Por qué se solicita en este momento?*

Tal y como figura en la propia Resolución del Ministerio de Industria, Energía y Turismo citada en la pregunta, la solicitud se presentó con fecha 26 de Julio de 2012, por lo que “ahora” lo que se ha producido es la publicación de la autorización de dicha concentración de trabajos e inversiones. El retraso generado en resolver dicha solicitud no es imputable a Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A. (“SHESA”) como operador de los permisos y solicitante de la misma.

- *¿Es igual la estructura geológica analizada en todos los permisos concentrados?*

Tal y como figura en la propia Resolución del Ministerio de Industria, Energía y Turismo citada en la pregunta, la estructura geológica es la misma, por lo que su estudio podría llegar a desarrollarse dentro del área de uno sólo de los cinco permisos objeto de la concentración aprobada.

Adicionalmente, de conformidad con la legislación aplicable en materia de hidrocarburos, para que dos o más permisos de investigación puedan ser “concentrados” una de las condiciones necesarias, entre otras, es que los objetivos exploratorios sean comunes.

- *Se solicita detalle de la estructura geológica de cada permiso.*

La estructura geológica de los cinco permisos objeto de la concentración es el flanco este del anticlinorio de Bilbao.

- *¿Ha previsto SHESA en el terreno de qué permiso va a realizar los sondeos?*

Como condición necesaria previa a la perforación de un sondeo exploratorio, se deben obtener todas las autorizaciones preceptivas que permitan acometer dicho trabajo.

El sondeo exploratorio Angosto-A, se situará, en su caso, en el Permiso Angosto-1 y más concretamente en el término municipal de la Merindad de Montija, comarca de Las Merindades, provincia de Burgos (Comunidad Autónoma de Castilla y León).

Están proyectados dos sondeos exploratorios en el permiso Enara, sondeos Enara-1 y Enara-2, a realizar desde un único emplazamiento.

- *¿Dónde y cuándo se van a realizar los sondeos?*

Respecto a dónde se van a realizar los sondeos, dicha cuestión se ha respondido en el punto anterior.

Sobre el cuándo, no se puede establecer una fecha concreta para su realización, dado lo incierto y dilatado de los plazos requeridos para la obtención de todas y cada una de las autorizaciones necesarias para la perforación de los citados sondeos, por lo que se realizarían una vez se dispongan de todas las autorizaciones mencionadas.

- *¿Cuál va a ser la cantidad invertida?*

Al no conocer la fecha exacta en la que se podrán realizar los sondeos exploratorios proyectados es complejo cuantificar la cantidad a invertir sin que las cifras facilitadas pudieran inducir a interpretaciones erróneas. Adicionalmente, se debe considerar que la cantidad a invertir puede fluctuar de manera importante dadas las condiciones cambiantes en el sector de hidrocarburos, así como de la disponibilidad en el mercado de materiales y servicios requeridos para su ejecución.

- *¿En qué permiso se van a realizar las inversiones y en qué años?*

Inicialmente, las inversiones se realizarán una vez se hayan obtenido todas las autorizaciones necesarias, en los permisos Angosto-1 y Enara.

Respecto a los años en que se van a realizar las inversiones, no se puede especificar por lo comentado en los puntos anteriores. No obstante, como estimación, la ejecución de alguno de los citados sondeos, presumiblemente, no podría realizarse antes del año 2017, dados los dilatados e inciertos plazos requeridos para obtener todas las preceptivas autorizaciones.

- *¿Qué trabajos e inversiones se prevén para el año 2015, 2016 y 2017?*

Los trabajos e inversiones que se prevén realizar en el año **2015**, son aquellos contenidos en los presupuestos y memoria de SHESA, que como sociedad pública, están incluidos y aprobados en los presupuestos generales de la CAV.

Los trabajos e inversiones para el año **2016 y 2017** se establecerán para cada uno de los ejercicios en cuestión, en función de dos hitos fundamentales:

- Momento en el que se encuentren los procedimientos de autorizaciones en tramitación

- Acuerdo entre los socios de los permisos en los correspondientes Comités a mantener a tal efecto

Vitoria-Gasteiz, 24 de marzo de 2015

Arantza Tapia Otaegi

CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD